GUK Getxok, eraikinaren egoera, ETSren akzio falta eta Getxoko udal gobernu taldearen informazio falta ikusita, Osoko Bilkura honi honako hau eskatu nahi dio: udal gobernuari eskatu diezaiola eraikina berreskuratzeko obrak betearazpen subsidiario bidez egikaritzeko, araudiak ezartzen duenari jarraikiz.

Desde GUK Getxo, y ante la situación de este edificio, la falta de acción de ETS y la falta de información desde el Equipo de Gobierno del Ayuntamiento de Getxo, venimos a pedir a este pleno que emplace al Gobierno Municipal a que, conforme a lo que establece la Normativa, ejecute de manera subsidiaria las obras de recuperación de este edificio.

Hori dela eta, honako ERABAKI PROPOSAMEN hau helarazi nahi diogu Osoko Bilkurari:

Por ello, elevamos al Pleno la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Ekintza eta informazio faltagatik eta jabetzak iragarritako epeak bete ez izateagatik, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatu nahi dio betearazpen subsidiario bidez egikaritzeko Neguriko tren geltoki zaharra berreskuratzeko egin beharreko obrak.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Gobierno Municipal que ante la falta de acción e información, y el incumplimiento de los plazos anunciados por la propiedad, ejecute, de manera subsidiaria, las necesarias obras de recuperación del edificio de la antigua estación de tren de Neguri.

Miguel Ibabek saioa utzi du.

Miguel Ibabe abandona la sesión.

**80.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESLEITUTAKO ZERBITZU AZPIKONTRATATUEN GARAPENERAKO BALDINTZAK BETEARAZTEKO EGIAZTAPENERAKO ATAL BERRIA SORTU.**

**80.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ CREAR UNA NUEVA SECCIÓN PARA LA JUSTIFICACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS DE DESARROLLO DE SERVICIOS SUBCONTRATADOS.**

Ibon Rodriguezek ondorengo mozioa

Ibon Rodríguez da lectura a la siguiente

irakurri du:

Aurreko Legegintzaldian bezala, askotan salatu dugu Getxon Udal zerbitzuak azpikontratatzeak ondorio kaltegarriak dituela eta Gobernu Taldeak gainera ez duela azpikontraten gaineko jarraipenik egiten.

Gobernuak behin eta berriro esan digu kontrola egiten duela eta horretarako aplikazioa sortu duela baina errealitatea ezberdina da: bajak ez dira betetzen, ezta jubilazioak ere, langileen baldintzek okerrera egiten dute eta ondorioz zerbitzuen kalitateak ere behera egin du.

Oraingoan, aurreko guztiarekin batera, Udal langileak ez direnen laguntza estimatuarekin, Udalak jasotako zerbitzuen kalitatearen okertzea salatu nahi dugu, Udalak zerbitzu mailen betetzea enpresen esku utzi duela eta. Honen ondorioz hainbat zerbitzuetako langileen aldarrikapenak sortzen dira: Etxez-etxeko laguntza zerbitzuarena, Lorezaintza, Bide-Garbiketa eta Zaborren Bilketa, Hondartzen Garbiketa, denetarik ezagutu dugu urte hauetan. Zerbitzu hauen guztien kalitatearen beherapena salatzen ari dira bertako langileak, eta ez bakarrik beraien lan baldintzen okertzea. Biak dira oso larriak, eta biak zuzendu behar dira.

Azpikontratetako langilea, herritarrekin batera, emandako zerbitzuaren egoeraren lehenengo lekukoa da. Askotan pertsona berean bi ikuspegiak batzen dira. Baina edozein kasutan langileen ardurek galderak sortzen

moción:

Al igual que en la legislatura anterior, hemos denunciado varias veces que la subcontratación de servicios municipales en Getxo tiene consecuencias nocivas y que, además de ello, el Equipo de Gobierno no hace un seguimiento de las subcontratas.

El Gobierno nos ha comunicado más de una vez que lleva a cabo dicho control y que ha creado una aplicación para ello, aunque la realidad es otra: las bajas no se cubren, tampoco las jubilaciones, las condiciones de los trabajadores empeoran y, en consecuencia, también lo hace la calidad de los servicios.

Además de todo lo anterior, queremos denunciar, junto con la estimada ayuda de trabajadores no municipales, el deterioro de la calidad de los servicios como consecuencia de que el Ayuntamiento haya dejado en manos de las empresas el cumplimiento de los niveles de servicio. En consecuencia, están surgiendo reivindicaciones de trabajadores y trabajadoras de varios servicios: Del servicio de ayuda a domicilio, jardinería, limpieza de caminos y recogida de basuras, limpieza de playas... Hemos podido ver de todo durante estos años. El personal trabajador denuncia la pérdida de la calidad de todos esos servicios, no solamente el deterioro de sus condiciones laborales. Ambos problemas son muy graves, y deben solucionarse.

El personal de las subcontratas, junto con la ciudadanía, es el primer testigo de la situación del servicio prestado. Varias veces, ambas perspectivas se juntan en una sola persona. En cualquier caso, las preocupaciones de

dizkigute: auzotarron zergak zelan eta nola ezartzen dira? Ateratzen diren etekinak zeren kostutan? Nor eta zeren kaltetan? Eta langileek pairatutako arazoen aurrean gure erantzuna arduratsua izan behar da: enpresari zerbitzuaren kalitatea eta lan baldintza duinak exijitzea.

las y los trabajadores nos llevan a preguntarnos ciertas cuestiones: ¿cómo se fijan los impuestos de las y los vecinos? ¿Qué coste tienen los beneficios obtenidos? ¿A costa de qué y de quién? Nuestra respuesta ante los problemas de los y las trabajadoras debe ser responsable: debemos exigir a la empresa condiciones laborales dignas y calidad en el servicio.

Gure eredua eta zuena zeharo desberdina dela jakin badakigu. Euskal Herria Bilduk udal zerbitzuen kudeaketa zuzenaren alde egiten du, gure ustez hori baita aldi berean zerbitzuen kalitatea eta langileen lan baldintzak bermatzeko erarik onena, eta esango genuke ere ekonomikoki egokiena eta justuena.

Sabemos que nuestro modelo y el vuestro son totalmente distintos. Euskal Herria Bildu está a favor de la gestión directa de los servicios municipales, ya que creemos que es la mejor manera de garantizar, conjuntamente, la calidad de los servicios y las condiciones laborales, además de ser la manera más justa y adecuada económicamente.

Honen aurrean auzokideok ezin dugu Udal Gobernu Taldeak eta enpresen arduradunek emandako erantzuna onartu. Oraingoan garbiketa zerbitzuan gertatzen ari dena ezagutu dugu, baina aurretik izan ditugu beste batzuk. Eta udal gobernuaren erabakia bide okerretik doala uste dugu, horren adibide da adibidez Udal egoitzan hartutako langilego politika zeinak lan postu publikoak amortizatzen doan lan horiek azpikontratatzeko. Hau ez da eztabaida pribatu bat, hauek ez dira bakarrik enpresen eta langileen arteko arazo partikularrak; hauek Udalaren intereseko arazo larriak dira, eta Gobernu Taldearen arreta osoa behar dute. Aldiz, daukagun Gobernu Taldeak arazo honekin guztiz arduragabekoa dela ematen du. Behin zerbitzuak azpikontratatuta, merkeagoak eta kudeatzeko errazagoak izatea espero baitu.

A la vista de ello, las y los vecinos no podemos aceptar la respuesta de los responsables de las empresas y del Equipo de Gobierno. Esta vez hemos conocido lo que pasa en el servicio de limpieza, pero anteriormente hemos tenido conocimiento de otros casos similares. Creemos que la decisión del Gobierno Municipal va por el camino equivocado. Prueba de ello es, por ejemplo, la política laboral de la Residencia Municipal, consistente en amortizar gratuitamente puestos de trabajo públicos para su subcontratación. Este no es un debate privado, ya que va más allá de problemas particulares entre la empresa la plantilla. Se trata de problemas graves que afectan al Ayuntamiento, y necesitan de toda la atención del Equipo de Gobierno. Sin embargo, parece que el Equipo de Gobierno que tenemos no tiene ningún tipo de preocupación con el problema. Una vez subcontratados los servicios, espera que sean más baratos y más

fáciles de gestionar.

Getxoko EH Bilduk Osoko Bilkurari ondokoa eskatzen dio:

1. Gobernu taldeak zerbitzu azpikontratatuak gardentasunez kudeatzeko Egiaztapenerako Atal berria sortu dezala. Atal berri honetan Gobernu Taldeak eragile sozialen (auzokideak, auzokideen elkarteak, sindikatuak, etab.) parte hartzea bultzatuko du interes talde guztien parte hartzea bermatuz.

2. Egiaztapenerako Atal berri honen arduren artean esleipen pleguak, zerbitzu mailak eta enpresen eta langileen artean sinatutako lan hitzarmenak betetzea egongo dira.

3. Gobernu Taldeak azpikontratatutako zerbitzuen kalitatea ebaluatu dezala. Zerbitzuak zehazteko pleguetan adierazten diren baldintzak iturritzat onartu ditzatela Udal Teknikariek.

4. Aurreko hiru puntuak premiaz bete daitezela, beti ere modu iragankorrean, Udal Gobernu Taldeak azpikontratatutako zerbitzu guztiak publikoak bihurtzea lehentasunezko helburua dela kontuan izanik.

5. Zerbitzu publikoak era zuzenean kudeatzeko helburuarekin gobernu taldeak auditoretza egingo du aztertzeko zein den kudeaketa eredurik egokiena eta bideragarriena beti ere zerbitzuaren kalitatea eta langileen lan baldintza onak bermatuz. Auditoretza horrek ez du soilik arlo ekonomikoa

EH Bildu Getxo pide lo siguiente al Pleno:

1. Crear una nueva sección para la justificación de la gestión transparente de los servicios subcontratados por parte del Equipo de Gobierno. En esta nueva sección, el Equipo de Gobierno debe fomentar la participación de agentes sociales (vecinos y vecinas, asociaciones vecinales, sindicatos...) y garantizar la participación de todos los grupos de interés.

2. Entre las responsabilidades de esta nueva sección de justificación, se encuentran los pliegos de adjudicación, los niveles de servicio y el cumplimiento de los convenios firmados entre la empresa y las y los trabajadores.

3. El Equipo de Gobierno deberá evaluar la calidad de los servicios subcontratados. Las y los técnicos municipales deben aceptar las condiciones indicadas en los pliegos que definen los servicios.

4. Los tres puntos anteriores deben cumplirse urgentemente, y siempre de forma temporal, teniendo en cuenta que el objetivo principal debe ser convertir en públicos todos los servicios subcontratados por el Equipo de Gobierno Municipal.

5. Con el objetivo de gestionar los servicios públicos de forma directa, el gobierno municipal llevará a cabo una auditoría para examinar cuál podría ser el modelo de gestión más adecuado y viable, garantizando en todo momento la calidad del servicio y las buenas condiciones laborales. Dicha auditoría

aztertuko, kontuan hartu beharko ditu ere aberastasunaren banaketa, langileen baldintzak, aberastasunaren sorrera eta abar.

no estudiará solamente el área económica; también deberá tomar en cuenta el reparto de la riqueza, las condiciones laborales, la creación de riqueza etcétera.

Susana Andollok azaldu du mozioaren alde bozkatuko dutela, kontratu publikoak zuzen gauzatzeko aurrerapausoak emateko, gai horien gaineko doktrina iritzia, lege mekanismoak eta gauzatzeko moduen garrantzia nabarmenduz. Udalean ahalegin handiagoa eskatu dute, kontratuak zuzen gauzatzea bermatzeko; plegu berriak gehitzea ere proposatu dute, gaia sakonago lantzeko.

Susana Andollo indica que votarán a favor de la moción para dar pasos en la correcta ejecución de los contratos públicos resaltando la importancia de la forma de ejecutar y los mecanismos legales y la opinión doctrinal sobre estas cuestiones. Piden mayores esfuerzos en el ayuntamiento para garantizar la correcta ejecución de los contratos planteando la incorporación de nuevos pliegos que aborden de manera más profunda el tema.

Alvaro Gonzálezek azaldu du mozioak enplegatu publikoen jarduna kritikatzen duela, kontratuak kudeatzeko formulari buruzko eztabaida bilatzeko. Udalak, teknikarien lanarekin, kontratazio publikoaren jarraipena egiten du, eta nabarmendu du kontratuaren arduradun figura existitzen dela; figura horren eskumenak aipatu ditu, eta mozioak planteatzen dituenarekin talka egiten dutela adierazi du. Proposatutako administrazio unitate berria dela bide, mozioak desbirtuatu egingo lituzte kontratuaren arduradunaren eskumenak. Mozioan planteatutako ereduarekin ere ez dator bat, parte hartzea ukatzen baitu. Bere ustez, zerbitzu publikoen kudeaketa ereduari buruzko eztabaida bilatzen bada zuzenean egin behar da, eta ez da horretarako enplegatu publikoen aurka jo behar. Kontratatutako zerbitzuen kudeaketa enpresen esku uzten dela esatea arduragabekeria da; izan ere, pleguek zehazten dute nola gauzatu eta kontrolatu behar den. Getxoko Udaleko kontratazio publikoa inguratzen duen

Alvaro González indica que la moción critica la actuación de los empleados públicos para buscar un debate sobre la fórmula de gestión de los contratos. El ayuntamiento con el trabajo de los técnicos hace un seguimiento de la contratación pública, resaltando que existe la figura del responsable del contrato, detallando sus competencias, y que las mismas chocan con lo que se plantea en la moción. La moción con la nueva unidad administrativa que proponen desvirtuaría las competencias del responsable del contrato. Tampoco comparte el modelo que se plantea en la moción ya que niega la participación. Opina que si se busca el debate sobre el modelo de gestión de los servicios públicos debe realizarse de manera directa y no cargar para ello contra los empleados públicos. Es irresponsable afirmar que se deja en manos de las empresas la gestión de los servicios contratados ya que los pliegos determinan la forma de ejecución y ésta se controla. Recalca la transparencia que rodea la contratación pública del Ayuntamiento de Getxo. Indica que la

gardentasuna nabarmendu du. Azaldu duenez, kudeaketa ereduak zehaztea bat dator legezkotasunarekin eta gobernu taldeak lankidetza publiko-pribatuaren eredua babesten du lan hitzarmen aplikagarriak kontrolatuz; horrek, hain zuzen ere, bermatu egiten du eredua ez dela merkeena baizik eta egokiena, eta zerbitzuak gauzatzeko moduari dagokionez Getxon zerbitzuen gaineko kanpo ezagutzara jo du.

determinación de los modelos de gestión se ajusta a la legalidad y el equipo de gobierno apoya el modelo de colaboración público-privada con control de los convenios laborales de aplicación y que garantiza un modelo que no es el más barato sino el más adecuado y sobre la forma de ejecución de los servicios se remite al reconocimiento externo sobre los servicios en Getxo.

Ibon Rodríguezen ustez EAJren jarrera ezkutatzea da, mozioak teknikariak kritikatzen dituela dioten adierazpenen atzean. EH Bildurentzat, zerbitzuak emateko eredua zuzeneko kudeaketa da, eta gobernuan egon diren lekuetan ildo horretatik joan dira, baina Getxon kudeaketa zeharkakoa denez, kudeaketa zuzen egiteko eskatu du. Kritikatu du udalean inork ez duela kontratuak gauzatzea kontrolatzen, baliabide faltagatik izan arren. Kritikatu du kontratuen baldintzetan sistematikoki lanak doan emateko eskatzen dela, prezioa murriztea, langileen eta zerbitzuaren kalitatearen kaltetan. Udal langileek dagokien lana egiten dute eta udalaren antolaketa kaotikoa izan da; horrek ere badu eragina zerbitzuetan. Auditoretza bat egiteko eskatu du, zerbitzuak nola kudeatzen diren ikusteko, eta gobernu taldeak sistematikoki uko egin dio. Politikariak kritikatu ditu, eta ez teknikariak. Gogorarazi du kanpoan kontratatutako zerbitzuak daudela, eta horiek gauzatzean grebak egon direla. Bukatzeko esan du teknikariek gobernu taldeko politikarien desgaitasun eta gabezia asko estaltzen dituztela.

Ibon Rodríguez opina que la actitud del PNV es esconderse tras las manifestaciones de que la moción critica a los técnicos. Para EH Bildu el modelo de prestación de los servicios es la gestión directa y donde han gobernado han actuado en esa dirección pero como en Getxo se hace una gestión indirecta piden que esa gestión se haga correctamente. Critica que en el ayuntamiento nadie controla la ejecución aunque ello sea por falta de medios. Critica que en las condiciones de los contratos se pide sistemáticamente que se den trabajos gratis, lo que es rebajar el precio y eso lo pagan las y los trabajadores y la calidad del servicio. Los empleados municipales hacen su trabajo y la organización del ayuntamiento ha sido caótica y eso influye en los servicios. Pide una auditoría para ver cómo se están gestionando los servicios y el equipo de gobierno sistemáticamente se niega. Critican a los políticos y no a los técnicos. Recuerda que hay servicios contratados externamente que en su ejecución se han producido huelgas. Finaliza indicando que los técnicos tapan muchas de las ineficacias e incapacidades de los políticos del equipo de gobierno.

Mozioa bozkatu ondoren, ezetsi egin da. Emaitza: 8 alde, GUK, EH Bildu; 14

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 8 votos a favor,

boto kontra, EAJ, PP, PSE-EE; abstentzio 1, Ciudadanos.

GUK, EH Bildu; 14 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE, 1 abstención, Ciudadanos.

**81.- CIUDADANOS UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO UDALEAN ETA UDAL-ERAIKINETAN IRISGARRITASUNA HOBETZEA.**

**81.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y EDIFICIOS MUNICIPALES.**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du.

Santiago Sainz da lectura a la moción.

Joseba Arregik zuzenketa transakzional bat aurkeztu, eta irakurri du:*"LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak honako hau eskatzen dio gobernu taldeari: Aldundiko Kultura Saileko beharrezko baimena izan bezain laster has ditzala "Udaletxearen inguruko balaustradak berreraikitzeko proiektua" egikaritzeko izapideak. Proiektu horrek udaletxera sartzeko eskaileran balaustrada eta eskudel berriak jartzea jasotzen du."*

Joseba Arregi presenta una enmienda transaccional a la que da lectura:

*"PRIMERA.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al equipo de gobierno a iniciar, en cuanto disponga de la autorización correspondiente de Cultura de Diputación, la tramitación para la ejecución del "proyecto de reconstrucción de balaustradas en el entorno de la Casa Consistorial", que recoge la colocación de las nuevas balaustradas y barandillas de la escalera de acceso al Ayuntamiento. "*

Santiago Sainzek zuzenketa transakzionala onartu du.

Santiago Sainz admite la enmienda transaccional.

Paula Amievak adierazi du GUK taldeak gutxienez sei aldiz planteatu dituela irisgarritasun gaiak, eta oro har onartu egin direla baina ez direla praktikara eraman. Ez dute mozioaren aurka egingo, eta gogorarazi du jatorrizko mozioa GUK taldearen 2017ko proposamenaren kopia dela. Bere ustez mozio transakzionatua ez da desgaitasuna duten guztien irisgarritasunera iristen; neurriak udal eraikin eta instalazio guztietara iritsi behar dira, eta GUK taldeak gai horri dagokionez egin duen proposamenaren berri eman du.

Paula Amieva indica que GUK ha planteado al menos en seis ocasiones cuestiones de accesibilidad que mayoritariamente han sido aprobadas pero que no se han llevado a la práctica. No se van a oponer a la moción y recuerda que la moción original es una copia de una propuesta de GUK del 2017. Cree que la moción trasaccionada no alcanza la accesibilidad para todos los discapacitados, medidas que deben extenderse a todos los edificios e instalaciones municipales, dando cuenta de las propuestas que ha realizado GUK sobre esta cuestión.

Maite Arraizak azaldu du EH Bildutik nabarmendu nahi dutela pertsona

Maite Arraiza indica que desde EH

guztiek irisgarritasun eskubidea daukatela, eta horrek zenbait betebehar eragiten dizkiela botere publikoei, baita udalari ere, bere eraikinei dagokienez; horrenbestez, horren inguruko azterlan oso bat eskatu du. Abstenitu egingo dira ulertzen dutelako mozioa ez dela aski.

Bildu se recalca el derecho a la accesibilidad a todas las personas y las obligaciones que se derivan para los poderes públicos y para el ayuntamiento respecto a sus edificios, por lo que piden un estudio completo al respecto. Se van a abstener por entender que la moción es insuficiente.

Joseba Arregik adierazi du talde guztiak bat datozela irisgarritasunari buruzko irizpideetan eta, horrenbestez, esku hartu behar dela, baina muga fisikoak eta aurrekontu mugak existitzen dira. Transakzionalak mozioaren funtsa aztertu du, hau da, udaletxera sarbidea. Proiektuaren gaur egungo egoeraren berri eman du, esparru horretan egingo dena, eta Bizkaiko Foru Aldundiak horren aldeko irizpena eman du, baina berresteke daude erabiliko diren materialak, eta laster horri ekin ahal izatea espero du.

Joseba Arregi indica que todos los grupos comparten los criterios sobre la accesibilidad y por ello hay que actuar, pero existen limitaciones físicas y presupuestarias. La transaccional se ha centrado en lo esencial de la moción que es el acceso a la casa consistorial. Da cuenta de la situación actual del proyecto que se va a acometer en ese ámbito y que ha sido informado favorablemente por parte de la Diputación Foral de Bizkaia pero que está pendiente de confirmar los materiales a utilizar y espera que en breve plazo se pueda iniciar su ejecución.

Paula Amievak azaldu du talde guztiak irisgarritasunaren gaian bat etortzeak ez duela esan nahi gobernu taldeak proposatutako edozer babestu behar dutenik. Gogorarazi du irisgarritasunari dagokionez gobernu taldeak ez dituela GUKen hainbat proposamen onartu, esaterako igogailuen ordenantza. Bukatzeko esan du proiektu bakoitza aztertuko dutela.

Paula Amieva indica que todos los grupos comparten la accesibilidad pero ello no supone que tengan que apoyar cualquier propuesta que se plantee por el equipo de gobierno. Recuerda que respecto a la accesibilidad el equipo de gobierno no ha admitido diferentes propuestas que plantearon GUK poniendo como ejemplo la ordenanza de ascensores. Finaliza manifestando que analizarán cada proyecto.

Joseba Arregik erantzun du akordio batera iristeko talde desberdinekin harremanetan jartzeko borondatea erakutsi behar dela, eta hori ez dute udal talde guztiek egiten. GUKen proposamen batzuk ez dituzte onartu, esaterako igogailuena, ezinezkoa zelako egitea eraikinen errealitate fisikoa zela medio.

Joseba Arregi replica que para llegar a un acuerdo hay que manifestar la voluntad de ponerse en contacto los diferentes grupos y eso no lo hacen todos los grupos municipales. No han aceptado algunas propuestas de GUK como la de ascensores porque eran de imposible ejecución debido a la

realidad física de los edificios.

Paula Amievak erantzun du igogailuen inguruan egin zuten ekarpena EAJk gobernatzen dituen udalerrietako beste ordenantza batzuetan indarrean dagoen neurri baten kopia zela, eta, gainera, zenbait kasu salbuesteko aukera ere planteatzen zela.

Paula Amieva replica que la aportación que hicieron sobre ascensores era una copia de una medida vigente en otra ordenanza de municipios gobernados por el PNV y además también planteaban la posibilidad de excepcionar en determinados casos.

Mozioa bozkatu da eta honako emaitza hau atera da: 15 aldeko boto (EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos) eta 8 abstentzio (GUK, EH Bildu).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 15 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Gizartea etengabe eboluzionatzen ari denez, Getxok erronka berriei egin behar die aurre etengabe. Hala, gai publikoetan partaidetza aktiboagoa eskatzen du gizarte horrek, eta udalerri batean udaletxea bera da arlo publikoaren erakusle nagusia.

Getxo se enfrenta constantemente a nuevos retos ante una sociedad en perpetua evolución, que reclama un papel más activo en los asuntos públicos, y no hay mayor expresión de lo público dentro de un municipio que la propia casa consistorial.

Baina udaletxe honek, antzinakoa denez, hainbat erronka ditu bisitatzen gaituztenentzat eta, bereziki, irisgarritasunarekin lotutako arazoak dituztenentzat. Hiritarrengandik gertuen dagoen administrazioa garen heinean, bermatu behar dugu mugikortasun urriko pertsona guztiak modu askean mugitu ahal izatea eraikin honetan, beraiena ere bada eta.

Pero esta casa consistorial dada su antigüedad, presenta varios retos a las personas que nos visitan, sobre todo problemas de accesibilidad. Como administración más cercana al ciudadano debemos garantizar que cualquier persona con movilidad reducida pueda moverse libremente y con libertad en este edificio, que también es el suyo.

Baina, irisgarritasunaz gain, segurtasunari ere garrantzia handia eman behar diogu, udaletxea nahitaez segurua izan behar da eta; izan ere, berriro diot, getxotar guztien etxea da. Segurtasun falta horren adibide dira udaletxera sartzeko eskailera nagusiak, alboko babesik ez dutenak, edo oraindik konpontzeke dagoen hesia, bisitatzen gaituen edonork ikus dezakeena.

Pero además de la accesibilidad también debemos de tener en muy alta estima el concepto de seguridad, pues nuestro consistorio, repito, la casa de todos los getxotarras, no puede ser insegura. Sirvan de ejemplo las escaleras principales de acceso al consistorio sin protecciones laterales o la todavía valla sin reparar que permanece a la vista de cualquier

Aipatutako eskaileretako segurtasun elementu bakarra erdiko eskudela da. Getxoko Ciudadanos udal taldeko kideok uste dugu elementu hori ez dela nahikoa; hala, erorikoak saihesteko eta sarbidearen segurtasuna hobetzeko asmoz, alboko babes batzuk jarri behar direla uste dugu.

Aurrez aipatu dugun moduan, Getxoko udaletxeko zabalgunean konpontzeke dagoen hesi bat dago. 2017an gertatu zen eta guztiok ezagutzen dugun istripuaz geroztik (ia bi urte igaro ostean) konpontzeke jarraitzen du.

Bukatzeko, ezin ditugu aipatu barik utzi ibilbide irisgarriak, eta horien kontrako adibide garbi gisa aipatu behar dugu udaletxeko "alderdi politikoen" gunea; izan ere, gurpildun aulkian doan batek igaro ezin dituen bi malda handi daude kaletik gune horretarainoko bidean. Horrez gain, igogailuz etorriz gero ere, ez litzateke erraza izango gu bisitatzea, igogailutik gurpildun aulkiarekin maniobrak egitea zaila delako; gainera, igaro ezin den beste malda bat dago aurrerago.

Hori guztia dela eta, udal-talde honek honako erabaki-proposamena aurkeztu nahi du:

ERABAKI-PROPOSAMENA:

Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak honako hau eskatzen dio gobernu taldeari: Aldundiko Kultura Saileko beharrezko baimena izan bezain laster has ditzala "Udaletxearen inguruko balaustradak berreraikitzeko

persona que nos visita.

Las citadas escaleras presentan únicamente un pasamos en su parte central como único elemento de seguridad. A nosotros, el Grupo Municipal Ciudadanos Getxo, este elemento nos parece insuficiente creyendo necesaria la instalación de unas protecciones laterales para evitar caídas y mejorar la seguridad de este acceso.

Como ya hemos mencionado anteriormente, en la explanada del ayuntamiento de Getxo tenemos una valla que sigue sin repararse, la cual tras el accidente ya conocido por todos y todas acaecido en 2017 siguen (tras casi dos años) sin ser reparadas.

Para finalizar, no podemos olvidar hablar de los itinerarios accesibles y señalar como un claro ejemplo opuesto a ellos el área de "partidos políticos" de la casa consistorial, ya que desde la calle se cuenta con dos importantes desniveles insalvables para una persona que viene en silla de ruedas. Pero además en la parte interior, desde el ascensor, tampoco lo tendría fácil para venir a visitarnos, pues difícilmente puede maniobrar con la silla de ruedas y luego también tiene otro desnivel insalvable.

Es por ello que este Grupo Municipal solicita la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al equipo de gobierno a iniciar, en cuanto disponga de la autorización correspondiente de Cultura de Diputación, la tramitación para la

proiektua" egikaritzeko izapideak. Proiektu horrek udaletxera sartzeko eskaileran balaustrada eta eskudel berriak jartzea jasotzen du.

ejecución del "proyecto de reconstrucción de balaustradas en el entorno de la Casa Consistorial", que recoge la colocación de las nuevas balaustradas y barandillas de la escalera de acceso al Ayuntamiento.

## GALDE-ESKEAK

Ibon Rodríguezek adierazi du martxoaren 6an Komunikazio Sailetik udal talde guztiei igorri zitzaiela udaleko Idazkaritza Nagusiak egindako idatzi bat, hauteskunde kanpainan baliabide publikoak erabiltzeari buruzko lege irizpideak azaltzen zituena. Hala ere, ondoz ondoko bi Getxoberritan EAJ udal taldeak bere espazioa erabili du hauteskunde propaganda egiteko, Alkatetzarako hautagaia den pertsonaren figura sustatuz. Arau hauste hori ikusita, udal idazkaritzak horri buruzko txosten bat ematea eskatu du.

Alkateak erantzun du EH Bildu eta beste talde politiko batek salaketa jarri dutela Getxoberrin argitaratutakoagatik Zonako Hauteskunde Batzordean; salaketa hori izapidetzen ari dira eta gai hau ebaztea erakunde horri dagokio. Bidenabar, udal talde guztiei eskatu die langile publikoekin errespetuz jokatzeko, sare sozialetan argitaratzen denari dagokionez; izan ere, baliteke datu pertsonalak ematea, eta hori errespetu falta bat da udal publikoei dagokienez; horrelako egoerak saihesteko eskaera egin du.

Ibon Rodríguezek hitz egiteko eskaera egin du, ulertzen duelako akusazio bat

## RUEGOS Y PREGUNTAS

Ibon Rodríguez indica que el 6 de marzo desde el departamento de Comunicación se remitió a todos los grupos municipales un escrito de la Secretaría General del ayuntamiento que trasladaba los criterios legales sobre la utilización de medios públicos en la campaña electoral. Sin embargo en dos Getxoberri consecutivos, el grupo municipal del PNV ha utilizado su espacio para realizar propaganda electoral promocionando la figura de la candidata a la Alcaldía. Ante este incumplimiento piden que por parte de la Secretaría municipal se emita un informe al respecto.

El Alcalde contesta que por parte de EH Bildu y otro grupo político se ha presentado una denuncia por lo publicado en el Getxoberri ante la Junta Electoral de Zona, denuncia qu ese está tramitando y es a dicha institución a quien corresponde resolver esta cuestión. A su vez, pide a todos los grupos municipales qu ese tenga respeto con los empleados públicos en relación a lo que se traslada a las redes sociales ya qu ese se pueden trasladar datos personales lo que supone una falta de respeto a los empleados públicos y pide evitar que se produzcan ese tipo de situaciones.

Ibon Rodríguez pide intervenir para replicar porque cree qu ese está

egiten ari dela.

planteando una acusación.

Alkateak erantzun dio hausnarketa bat baino ez duela egin, eta talde guztiei udal langileenganako errespetua eskatu die.

El Alcalde le contesta que se ha limitado a realizar una reflexión pidiendo respeto a todos los grupos en relación a los empleados municipales.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du goizeko hamaikak eta hogeita hamar minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las once horas y treinta minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.